

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Maiatzak 26 24 zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



INEMen izena ematea gaur egun beharrezkoa da

## 1.829 langabetu Arrasaten

Gaur egungo gizarteak arazo ugari ditu, hauetako bat, eta larrienen arteak koka dezakeguna, langabezia dugu. Nahiz eta sarritan entzun Arrasate inguruan langabeziak ez duela eragin handirik, gure herrian pertsona-kopuru garrantzitsua dugu egoera honetan, 1.829 pertsona, alegia. Pertsona talde honetan adin desberdinetako jendea aurkituko dugu, baina Arrasaten langabezia bereziki emakumeak jasan behar izaten dute. Dena dela, azken bi urteetan langabeziak, oso nabarmenki ez bada ere, gure herrian beherakada izan du.

(14. or.)

## ORAIN ETA HEMEN

### Iturripe

Udala eta Gizabidea Fundazioa azkenean heldu dira akordio batera: erabiltzeko lagatze-tratua zehaztu da.

(10. or.)

### Newyorkear bi gure artean

Sharryn Kasmir eta Geoff Bate Arrasaten daude euren tesi doktoralak egiten. Ez dute izan inolako problemarik integratzeko, eta oso gustura bizi dira hemen.

(12. or.)

### ELKARRIZKETA

#### Alfonso Gorroñogoitia

LKako lehendakariohia eta Fagorreko lehendakaria datorren Urrian jubilatuko da. Kooperatibez berba egiterakoan, bere izena ezin daiteke utz aipatu barik.

(17. or.)

### PODIUMA

#### Josémari Otadui, "Txosa"

Hainbat urtetan Mondrako aurrelari karismatikoa, orain Eibarren dabil; beti bezala, gol asko lortzeko prest.

(19. or.)

## KLINIKA DENTALA

DOHANEKO AURREKONTUA

- \*ODONTOLOGIA OROKORRA
- \*PROTESI FINKOA
- \*PROTESI MUGIKORRA
- \*HAUR ETA HELDUENTZAKO ORTODONTZIA

Iturriotz kalea, 7 bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak .....	458744
--------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartea .....	798777
--	--------

## OSTIRALA 26

- **Zinea:** Alai: "Las amistades peligrosas".  
Novedades (Bergara): "Rain Man".
- **Corpus Christie Oñatin:**  
-11,30-1,30 eta 4-8: Foru en parantzan haurrentzako parkea.  
-7etan: Kultur Etxean "Gazteria Lehiaketak Euskadi 88" erakusketaren inauguraketa (Ekainaren 4 arte zabalik).  
-10,30etan: Santa Ana Antzokian XI. Musikegunak, biolontzelo eta piano kontzertua.
- **Goardiako farmazia:**  
Irizar, Erguin.

## LARUNBATA 27

- **Zinea:** Alai: "Las amistades peligrosas".
- **Bertso-emanaldia:** Amayan, 10,30etan, Deba Garaiko bertsolariak.
- **Corpus Christie Oñatin:**  
- gaueko 10,30etan: Santa Anan, Musikegunak: Ttanta-ka taldearen "Flaminio" opera.
- **Goardiako farmazia:**  
Amezua, Santamaina.

## IGANDEA 28

- **Zinea:** Alai: "Las amistades peligrosas".
- **Corpus Christie Oñatin:**  
- Zahar sarituen eguna.

- **Goardiako farmazia:**  
A. Ruiz, Maalako Errabala.

## ASTELEHENA 29

- **Zinea:** Alai: "Las amistades peligrosas".
- **Goardiako farmazia:**  
Morales, Iturriotz.

## ASTEARTEA 30

- **Zinea:** Alai: "Las amistades peligrosas".
- **Goardiako farmazia:**  
Ruiz Torre, Ferrerías.

## ASTEAZKENA 31

- **Goardiako farmazia:**  
Español, San Andrés.

## OSTEGUNA 1

- **Zine Klub:**  
Amayan, 8,30etan, "Los modernos".

## OSTIRALA 2

- **Antzerkia:** Zaldibarren, 10etan, debalde, Eke Kei talde elgoibartarraren "Ni naiz Kapitan Piloto".



## ERAKUSKETAK

- **M<sup>a</sup> Luisa Maiztegi:** Pintura-erakusketa. 20 kuadro: paisajeak, errelatoak eta itsaso-gaiak. Etxe-Aundi jatetxean (Torre Auzo, 9 Oñati). Hilaren 31 arte.
- **San Frantzisko Xabier Ikastolako Ikasleek:** Esku-lanak eta hauei buruzko bideo saioak. Monterronen, Maiatzaren 30etik Ekainaren 2ra (5-8).

## IKASTAROAK

- **Sofrologia eta lasaikuntza teknikak:** Maiatzaren 29tik Ekainaren 2ra (6,30-8), Ferial Eskola Publikoan, Milagros Alvarez-en eskutik. Prezioa: 1500 pta. Izenemateak: Gizarte Laguntzailea, M<sup>a</sup> Luisa, Tfnoa.: 79 72 11 (3-6).

## ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix  
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo  
Uribarren.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 3.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## O esprito taciturno

Galiziar Literatura Eguna ospatu berri da, dagoeneko irakurleak jakingo duen bezala. Urtero urtero, Galizian bertan nahiz atzerriko galiziar zentruetan begirume eta errespetu osoz hizkuntza horretan idatziriko literaturari egiten zaio omenaldi, aukera aprobetxatuz idazle konkreturen bat goraiatzeko delarik.

Aurten Celso Emilio Ferreirori egokitu zaio txanda; ongi mereziturikoa, bera baita Rosalia Castrokekin batera nazionalitate hartako idazlerik adierazgarrienetakoa. Euskaldunok badugu Ferreiroren berri eta baita gure hizkuntzara itzulitako bere testuen hautaketa bat ere. Eukal idazleen Elakarteak iaz argitaraturiko olerki bilduma batean, Salvador Espriu, Gabriel Aresti eta Ferreiro bera izan zituen kontutan, euren lanik interesgarrienak hiru hizkuntzetara itzuliz.

Celso Emilio Ferreiro Orenseko Celanovan jaio zen 1912an eta 1979an hil zen Vigon. Gazte gazte-tandik hasi zen bere lanak argitaratzen eta azkena Ferreiro hil ondoren kaleratu zen, "Libros dos homenaxes", alegia. Bestalde, eta urte haie-tan gertatu ohi bezala, Celso Emilio-ren literatur ahaleginak ez ziran bakarrak; politikan ere jarrera aber-tzalea zeraman eta Mocedades do Partido Galeguistako kide izan zen.

Baina gerrak harrapatu zuen eta ordurarteko lanari etena etorri zitzaion. Hala ere, 1964ean Union do Pobo Galego alderdiaren sorreran agertzen zaigu berriz. Guztiz identifikatua, beraz Galiziaren burujabeta-sunaz.

Nik Ferreirori buruz izan nuen lehen erreferentzia, beste behin zutabe hauetan aipaturiko Manuel Maria idazle haundiak eman zidan. Galiziako Baionako paradorean geunden, orujoa bere eragina sortzen ari zelarik, eta Manuelek txit istorio polita kontatu zigun. Laburki doakizue. Behin, bere herkide batekin egin zuen topo kalean Ferreirok eta, ohiturari jarraiki, baxoerdi batzu edatera joan ziren. "O esprito taciturno" ziotsan Manuel Mariak txikiteoarenari, galiziarrek ardoa katilu txikitan (taza) edaten dutela gogoraraziz. Ba, gauza zera da, hamaika dzanga egin ondoren eta Celanovako trapuzahar guztiak astinduta zituztela, herkideak honela bota zion Celsori:

— Eu son carlista. E ti?  
— Eu tamén. Mais de qué Carlos?, erantzun zion Ferreirok.  
— Home!... de Carlos Hugo!!!  
— A! Eu non. Eu son de Carlos Marx.

Hantxe amaitu ei zen gau hartako "esprito taciturno" a

*Josemari Velez de Mendizabal*


## LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2

Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



PEÑACOBA  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
Tfnoa: 79 29 93  
79 14 01

ARRASATE

## AEKko ikasleak herriari

Gaur AEKko borroka eguna dela eta, salatu behar ditugu AEKak jasotako erasoak.

HABE legearekin gobernuak AEK desagertarazi nahi du. Badirudi jende horrek ez duela nahi euskara bultzatzerik eta denok dakigu euskara galtzeaz dagoela.

Euskararen normalizazioa lortu nahi badugu beharrezkoa da denon artean bultzatzea, bai herr-erakunde (hain zuzen ere, AEK) bai erakunde ofizialak, noski; eta ez trabarik ipintzea.

Baina dakigunez, gobernuak bakarrik oztopoak jarri nahi ditu.

HABE legea oztopo hutsa da.

Homologatzeko dauden zentzugabeko baldintzak ere salatu nahi ditugu.

— Zergatik eduki behar dute taldeek zerbaki zehatz bat? Horrek suposatzen du hain zuzen ere, herri txikietan ez dutela eskubiderik euskara ikasteko... Euskal Herria ez da bakarrik Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea...

— Zergatik jasotzen dute Udal euskaltegiek (HABEkoek), AEKkoek baino diru kopuru gehiago?

Badirudi HABE legea egin dutenek duela urte batzuk euskara irakasten hasi zirenak ahaztu dituztela, eta

hori injustizia hutsa delakoan gaude. Eta zer?...Orain hauteskundeak!!... Euskara denon ahotan, ezta?...

Betiko Leloa!!!

*Arrasateko AEKko goizeko taldeak.*

## Erasotzaile berriak

Arrasateko Institutuko ikasleak, aurreko ostegunen, Ertzantzak gogor eraso zituen.

Ikasle hauetako talde bat Axerikuako bidegurutzean lasai eserita zegoela (Bergararako irteeran) Ertzantzako patruila bat agertu zen. 30 minutu egongo zirela esatean, euren 15 minutu baino ez dutela lagatzen erantzun zuten. Ertzantzaburuekin berba egin eta minutu bat ere ezin zela eta alde egiteko esan zuten. Ikasleek ezetz erantzun eta patruila berri bat agertu zen, pistolak, porrak eta "Ertzaina" txapak ematen dituzten indarra eta konfidantzarekin, jarrita zegoen jende guztia jotzen hasi ziren, taldea joateko prest zegoenean.

Azken aste hauetan euskal gazteek jasandako erasoaren kontra egiten ari diren mobilizazioen inguruan burutu da sentada hau.

*Institutuko ikasle batzuk*



**gili gili**

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**

Liburu eta oparidenda  
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

**CASA**  
ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarako
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarako
- \* Saltokietako Arrisku Orotarako
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE




# Ezagutzen duzu AED? Zer deritzozu egiten duen lanari?



**Xabier Ezkurra**  
(ikaslea)

Bai, batzuetan egon naiz bertan. Ondo ikusten dut, euskararen alde herri honetan zerbait egin beharko dugu eta.




**Xabier Etxebarria**  
(administraria)

Bai. Nik uste dut horrelako erakundeek Euskal Herrian ez dutela zertan egon behar, era honetako erakundeak egotea seinale txarra bait da, herriak euskalduna izan behar du eta. Dena dela, AED hor dagoenez, euskara maite duenak bazkide egiteko aukera hor du.



**Aurora Iturrikastillo**  
(etxeoandrea)

Bai. Nire ustez ondo egiten dute beren lana, egin beharrekoa da.



**Donato Elizondo**  
(jubilatua)


Ez, ez dut ezagutzen.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai,9

ESKORIATZA-Arana,13



# KABINETE MEDIKOA

**Medikuntza  
Digestibidea  
Endoskopia  
Ekografia  
Analiak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

# ERROTULAZIO KONTZEPTU BERRIA



**EYSKO-ROT**

- FURGONETAK, ERAKUSLEHIOAK ETA FATXADAK ERROTULATU
- BARRU ETA KANPOKALDEAK SEINALEZTATU
- ANAGRAMAK ETA LOGOTIPOAK SORTU

Gipuzkoa Etorbidea z/g (Legarre pabiloi Induatrial) Tfnoa: 79 16 98 ARRASATE

# besteek esana

“Arrasateko EEko Udal eskema berriak Bittor Aran-zabal eta Aitor Orobengoak zinegotziak mantentzen ditu, Aitor Hezkuntza Batzordeburutzan –Bittorrek lan-ara-zoak zituelako– eta Gobernu-Batzordekidea da.

Bestalde, Julio Gallastegik, ekonomilaria eta zinego-tziohia, Hazienda Batzordean EE ordezkatzeko du, Mikel Orobengoak Gazterian eta Roberto Velez de Mendizabalek funtzio berak betetzen ditu Kultura Ba-tzordean. (...)

Mikel Orobengoak dioenez, prestakuntz era egokia da beste legegintzaldi batzuetara joan ahal izateko, be-rriztapena azkarrago eginez eta gainera, “Harrobi politikoa”rekin ezagutza oneko jendea ekarriko du”.

*(Javier Rodriguez kazetariak “El Correo Es-pañol” egunkarian)*

Apirilaren 29-30eko gauean, Urbiako ermita ingu-ruan kanpin-dendaz akanpatu zuten Arrasateko gazte-taldeari zuzentzen natzaio.


Inguru hori laga zutenean, zaborra eta zikinkeria baino ez zuten utzi...Jokaera honek gizabide falta adie-razten du; batez ere, mendizaletasuna praktikatzeko duen talde bat denean, harritu egiten gaitu. Zuen portaera honek pott egin dezala, gure ingurugiro eta naturaren alde!

*(Joaquin Ercilla tolosarrak DV egunkarian)*

“Marxista ez ortodoxoa, Gorbachov-ek Sobiet Bata-sunean burutu dituen erreformen aldekoa, “Antxon” ez da sekula Iturbe Abasoloren etsaia izan. “Iturbe peliku-lako ona zela eta “Antxon” txarra, indioen pelikula bat dirudi -Argeliako Gobernuaren iturri baten arabera. Egia zera da, Iturbek, Argelen hil aurretik, Gobernuarekiko elkarrizketan aholkua emateko deitu ziola”.

*(“Tiempo” astekarian)*

## Deba Garaia bailarak badu etorkizunik turismo mailan?



Eusko Jaurlaritzaren Tu-rismo Sailean bailaraz baino, ikuspegi orokorra lantzen saiatzen gara. Oraingoz, bada, ez dugu ezer berezirik haran honetarako.

Garbi dago turismo men-talitaterik ez dugula, behar-bada industriaren munduan burubelarri murgilduta bizi izan garelako. Ondorioz, eta hau begibistakoa da, kalitatezko turismoa erakar-tzeko behar den azpiegiturarik –hotelak, golf eta tenis zelaiak...– ez daukagu.

Gure asmoa bikoitza da. Batetik Euskal Herria kanpoan promozionatu, ezagutzera eman, estatu mailan, Europan zein Estatu Batuetan. Laster, hain zuzen ere, Japoniara goaz helburu horrekin, Euskal Herria ezaguteraztera. Bestetik, inbertsioak sustatu, fondorik gabeko dirulaguntzak eta kreditu berezien bidez. Horregatik, gure asmo orokorretan ondo txer-tatzen diren ekimen pribatuek gure laguntza izango dute.

Turismoaz zer ulertzen dugun argitzea ere kome-ni zaigu. Orain arte, batzuentzat bakarrik mesedega-ri izan diren topikoez ibili gara. Eguzki eta hondar-tzetako turismoaz gain, bada beste turismo motarik: kulturala eta gastronomikoa adibidez, eta hor badu-gu zer eskaini.

Urbia eta Degurixa kasuak aipatu nahi nituzke, amaitzeko. Nire ustez, horiek beren horretan gorde behar ditugu. Beste turismo mota bat erakarriko lukete, turismo berdea alegia, mendizaleak, natura-leak...

*Imanol Bolinaga*

*Eusko Jaurlaritzako Turismo Idazkariordea.*

## LODITASUNA eta ZELULITISA

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobe-txa zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA  
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

INSTITUTO MEDICO GASTEIZ

## ARTE LENIZ koadro eta moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE




**Almacén del Mueble  
Mondragón**  
Prezio paregabeak  
Zatozte

Gipuzkoa Etorbidea, 6 Lehena behea Legarre



# Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko. Diru-arazorik ez izateko.
- Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.
- Ordu-arazorik gabe.
- Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.
- GK Txartela duzu praktikoena.
- Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.
- Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

---

#### Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

---

- Garibaiko Sukurtsala
  - Zigarrolako Sukurtsala
  - Munareko Sukurtsala
- 

# GK:

GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA



## LANPOSTUAK

ARRASATEKO UDALAK honako lanpostuak bete nahi ditu:

- EUSKALTEGIKO IRAKASLEA.
- BILTEGIZAINA.
- UDALTZAINA.
- OBRA PUBLIKOETAKO INJINERU TEKNIKOA.
- ENPLEGU -DINAMIZATZAILEA (Urte betez).

Instantziak aurkezteko epea EKAINAREN 13an arratsaldeko 6,30etan amaitzen da.

Oinarriak (GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEKO 97. zenbakian argitaratuak) Udaletxean eskura daitezke.

Arrasaten, 1989ko Maiatzaren 23an

ALKATEA



## NI NAIZ KAPITAN PILOTO

Ekekei Antzerki Taldea

Noiz: EKAINAK 2, OSTIRALA

Non: ZALDIBARREN.

Ordua: 10etan





**T x a n d a k a**

Ume gutxiegi jaiotzen omen

Ezin uka aspalditxo honetan arazo demografikoak modan dau-denik. Zehazkiago esanda, jaiokuntz tasa txikiegia omen da, Euskal Herrian batez ere, nahiz eta ez izan hemengo arazoa bakarrik. Ume gutxiegi egiten omen dugu, eta honela jarraituz gero, hondamendi eta katas-trofe apokaliptiko guztiak iragartzen zaizkigu etorkizunerako. Eta interesgarria da, hau salatzekoan bat etortzea, nolabait esateko, indar sozio-ekonomiko neoliberalen ordezkariak, eta indar moral eta erlijioso kontserbadoreak. Gainera, egia da ikuspegi abertzale eta euskaltzaleetatik ere, aipatu ohi dela euskaldun gehiagotzatearen komenientzia.

Batzuek diotenez, laster zahar gehiegi eta haientzat lan egiteko gazte gutxiegi izango omen da; Gizarte-Segurantzaren kutzak hutsik izango omen dira... Hirugarren munduko biztanleria gaztearen beharrea gerta omen gaitezke, haien menpe geratzeko arriskuaz, etab.

Besteek, egoera hau balore moralak galtzearen ondorio dela esaten dute, gure egoismoaren, solidaritate-ezaren, hedonismoaren, emaitza dela; eta berriro ere, sakrifizioaren eta familiaren zentzu positiboa berreskuratu beharko genituzkeela.

Guzti hau arazo konplexua da eta zer esan asko legoke, baina matizazio gehiegirik gabe, hona go-goeta labur batzuk:

1/ Euskaldunon arazoak gutxi izatetik ote datozkigu, ala Mirandek uste zuen bezala, garen bezain "epelak" eta "zintzoak" izatetik?



Iñaki Mendiguren\*

2/ Txunditzekoa da eritzi hauen atzean azaltzen den Hirugarren Munduarekiko beldurra. Orain artean gure jostailu izan direnek faktura pasako ote diguten beldurra ote dago, ba?

3) Harrigarria da, (lehen, zeruaren) orain zahartzaro "zoriontsua"ren amuari zein

erraz heltzen diogun! Alegia, prest egoten gara 65 urte sakrifikatzeke, gero, kasurik onenetan ere 10-15 urtetakoa izan litekeen zahartzaroz ziurtatzeko.

4) Arazo baten aurrean, susmagarriak dira "nire irtenbide hau ala kaosa" (=ume gehiago egin ala hondamendia dator) bezalako planteamenduak. Zergatik ez dira kuestionatzen kapitalismoaren eta kontsumismoaren baloreak, berauen ondorio sozio-ekonomiko guztiekin? Bada eskarmentatzeko ordua: hazkunde ekonomikoa ez dago automatikoki lotuta justizia, solidaritate eta bizitza-kalitate hobearekin. Ume-kopurua gehitu nahi bada, ministraritza edo pulpitoetatik "mamua datorrela" esatea baino eraginkorragoa litzateke etorkizun itxaropentsu, gizakoi eta atsegina-goa jendeari eskaintzea.

5) Balore-aldaketa dagoela? Eskerrak! Ala ezin dio emakumeak bere buruari beste norabiderik ezarri gizartean, umez eta etxeko lanaz arduratzea baino? Zergatik da txarra bizitza gozatu eta disfrutatu nahi izatea, bizitzan LANA eta FAMILIA bakarrik ez daudela pentsatzea, SAKRIFIKATU bai, baina norentzat eta zertarako jakin nahi izatea? ("Egoistak" izateko eskubidea denoi dagokigu, ez "gutxi batzuei" bakarrik).

(\* Irakaslea

**laburrak**

■ Ekaina kulturala

Datorren hilerako, eta joan den urteko urritik hasitako hilabetereko programaketari jarraituz, honako ekitalde hauek antolatuta dira:

— **Antzerkia:** Orain taldearen "La señora Julia", hilaren 3an; Eke Kei-ren "Ni ez naiz Kapitan Piloto", 2an, Zaldibarren; Haurrentzako: "Xilipurdi", 10ean.

— **Zinema:** "Los modernos", 1ean; "Festín de Babete" (8an); "Cobra verde", 15ean; "Mi novia está loca", 22an.

Programaketa honetarako 630.440 pta.ko defizita aurrikusten da, Kultura eta Kiroletako Batzordeak onartu egiten duelarik.

■ Argindarra Zalbibarren

Zaldibar frontoian kultur ekintzak burutzeko asmoz, eta Gazteria Batzordearen proposamenaz, Zaldibar frontoian argindarra era finkoz jarriko da.

■ Pobreziaren aurkako Plan Integrala

Jarri da martxan, jadanik, "Pobreziaren aurkako Plan Integrala". Lehenengo zortzi eskaerak egin dira. Emango diren laguntzak 60.000tik ia milioi erdira doaz. Hauek epeka ordainduko dira, dirua jasotzeko lehenengoan emandakoa eskatzen zenaz gastatu dela justifikatu egin beharko delarik.

■ Plan Mondragón

Plan Mondragón delakoak honako ekitaldi hauek antolatu ditu aurten-gorako: errebisio eskolarrak, kirolarien errebisioak, hipertentsoen kontrola, sanitate hezkuntza, Gorpuntz Hezkuntzako monitoreak eta 3. Adinerako Medizina Prebentiboa. Udalak ekitaldi hauetarako milioi bateko subentzioa eman du.

**ILE - ERORKETA**

Oraintxe bertan, ARRASATEtik irten barik, aprobeitza zaitez gure esperientziarekin

Kontsulta ARRASATEN: SAIOA KULTURA FISIKORAKO ZENTRUA  
Informatzeko: Tfnoa: 945 / 25 62 00 eta 25 63 33 (Gasteiz)

**INSTITUTO MEDICO GASTEIZ**

**URRATS**

**AHOLKULARITZA**


GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

## Ospitale berriaren eskaera Parlamentura eta Iturripe, azken Plenoan

Joan den ostiralean izandak Plenoan, EAren proposamenez, Ospitale berriaz Mankomunitateak eginitako eskaera zabalagoa egin zen. EAK karta bat aurkeztu zuen zeinean Osakidetzaren jarrera salatzen duen. EAKoen eritziz, Osakidetzak botu abertzale ugari dituen aldeak zigortzen ditu, PSOEn eremuak beneficiatuz. Horrela, EAren proposamena zera da: Mankomunitatearen karta berrestez gain, Biltzar Nagusia eta Legebiltzarrei erreibindikazio honi laguntzeko eskatzea. Proposamena, EE, PNV eta EAren aldeko botuekin aurrera joan zen. PSOE eta HB absenteitu egin ziren.

Mankomunitatearen kartari dagokionez, alderdi guztien botuekin berretsi zen. PSOEek gai honi ematen ari zaion enfokearekin bere desadostasuna ageriz karta bat aurkeztu arren, azkenean bere botua baiezkoa



Iturriperen erabiltzeko lagatzea onartu da

izan zen. Karta hau gai-zerrenadan izango dutelarik, aste honetan eta hurrengoan izango dira plenoak arroko beste herrietan.

Bilkuran Gizabidea Fundazioak Udalarit Iturripeko Kirol instalazioak erabiltzeko lagatzea aho batez onartu zen. Alkateak zoriotsutzat jo zuen akordioa. Akordio honen arabera, Udala Iturripeko zati batez (Uribe Auzotik gertuen dagoena) jabetuko da; beste bat (atletismoko

pistena), Udalak hiru urtez erabili ahal izango du (zati hau Gizabideak Eskola handitzeko duen asmoaren barruan sartzen da); eta hirugarren zati bat, Udalak epe luzearako erabiltzeko eskubidea izango du. AUKEAK, bere aldetik, Iturripen eraikiko diren instalazioak zelakoak izango diren laster definituko du.

Gai-zerrendako beste gaia, aurrekontua aldatzeko lgo espedientearen onspenarena zen. Honen arabera, aurrekontuak milioi erdiko igoera izango du. Eta, azkenik, ur eta saneamendu-horniduraren konsortzioari buruz Gobernu-Batzordeak hartutako akordioaren berrespina egin zen. Akordio honetan, Gipuzkoan homidura eta saneamendu osoa lortzeko Konsortzio Bakarra eratzea erabaki da.



Anke Dill

## Stuttgart-eko Lizeoaren Kontzertua

Mozart, Poulenc eta Bizet-en obrak eskeini zizkiguten joan den larunbatean, San Juan Parrokian, Stuttgart-eko musikariek, Peter Bachofer-en zuzendaritzapean. Orkestra hau, hemeretzi bibolinek, bost biolak, sei cellok, hiru kontrabajok, bi falutak, bi oboek, bi klarinetek, bi fagotek, bi tronpetak, bi tronpak eta tinbal batek osatzen dutena, Euskadin hainbat kontzertu eskeintzen ari da. Oso orkestra gazte eta interesgarria dugu Stuttgart-ekoa. Bibolin nagusiak, Anke Dill-ek, 15 urte besterik ez ditu. Parrokiara hurbildu zen jendetzak (ez zen bete, baino jende dexente bildu zen) biziki txalotu zuen



# comercial SUMOFIC, S.A.

## ZERBITZU INFORMATIKOAK

### ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

**DATU-BASEAK**


**OFIMATIKA**

**MANTENU-ZERBITZUA**

**\*Ekipamendu eta programak**

**\*Telemandua**

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Gurutze Gorriak Deba Garaiarako S. Prudentzoko postua du

## Gurutze Gorria: 45.000 km.

Nahiz eta Gurutze Gorriaren helburua anbulantziarekin zenbat eta zenbat kilometro egin duten esatea ez den, iazko ekitaldiaren balantzea egiterakoan, honako datu hauek kontutan hartu behar dira:

## Eroskik KFKdun produktuak baztertu

Oraintsu erabaki duenez, Eroskik erretiratu egingo ditu bere saltokietatik ozono-geruzarako hain kaltegarriak diren KFKdun produktu guztiak. Albiste honen garrantzia hobeto ulertzeko, zera azalduko dugu, ozono-geruza, lurrazaletik 24 km. ingurura dagoen atmosferako geruza edo estratoa dela. Ozono-geruzak neutralizatu egiten ditu eguzkiaren izpi ultramoreak gure planetako bizitzan eragingo lituz-

Deba Garaia **dagokionez**, 1988an 636 anbulantzi irteerak egin dituzte; 16 erreskate; 397 zauritu atenditu edo zentru asistentzialetara eraman; hirugarren adinekoentzako 3 aktibitate antolatu zituzten; uda garaia **dagokionean**, Arrasateko Kiroldegian 2.704 ordu zerbitzuan izan dira, 279 sendadura eta 23 anbulantzi irteera eginez; 3 sokorrismo-ikastaro burutu ziren, 109 partaiderekin; eta 2 perfekzio eta birziklatze ikastaro. Epe honetan, Gurutze Gorrikoek guztira, 44.791 km. egin eta 90.000 lanordu, egunez zein gaue, sartu zituzten. Orain Udalak emandako subentzio berria du, 100.000 pta.ko diru laguntza hain zuzen ere.

keen ondorio kaltegarriak, azaleko minbizia eta Lurraren larberotzea kasu, aipatu izpiei bidea eragotziz.

Azken urteotan, baina, zientzilariak geruza honen hondaketaz konturatu dira. Ozono zuloak agertu dira han goian, beste kutsagai batzuen artean klorofluorkarbonoak edo KFKak eraginda. KFK hau zenbait aerosolen propulsiio-sistamarako erabili ohi da.

Orain arteko laka, bizar aparrak, spray eta gainerako aerosolak, bada, ez ditugu aurrerantzean Eroskiko apaletan aurkituko.

## ■ Tximistorratzak

Arrasaten, Eguzkik salatu duenez, gure herrian badago hainbat tximistorratz erradiaktibo; konkretuki, Santa Agedako Sikriatikoan, Eskualdeko Ospitalean, Institutuan, Anbulategian eta bi Aurkin ikusi dituzte, gehiago egotea ere posible delarik. Tximistorratz hauek legeak debekatzen ditu, eta denboraren poderioz sufritzen duten narriadura dela eta, arriskutsu bihur daitzke. Eguzkik mozi bat sartu zuen azkenengo plenoan, Udalari tresna hauen zentsua egiteko eta kentzeko eskatuz. Udalak gaia lehenengo Batzordean tratatzea erabaki du.

## ■ Roneok greba amaitu

Asteazkenean bukatu da Roneoko langileek bi egunez eginiko greba. Egun honetan Enpresako Batzordearen bilera izan da, aurrerantzean zer postura hartuko den erabakitzeko. Greba erabatekoa izan da. LAB sindikatuaren salaketa baten arabera, enkargatu batzuk langileak lanera itzul daitezten bultzatu dituzte.

## ■ AEK

AEK eramaten ari den mobilizazioen barruan, asteartean Arrasaten 100en bat lagun enkartelatu ziren. Borrokaren helburua Administrazioaren eraso-politika salatzea da.

## ■ Haur dantzarien eguna


Datorren Ekainaren 18an "Haur dantzarien eguna" ospatuko denez, Maiatzaren 30ean bukatzen da bi edo hiru dantzari bazkaltzera gonbidatzeko eskatzeko epea. Gonbite eskaerak Ikastoletan edo "Hire"n eska daitezke.

comercial  
SUMOFIC, S.A.

## PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,  
FOTOKOPIAGAILU,  
TELEFAX,  
etab.etan.  
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**



Geoff eta Sharryn pozik daude Arrasaten

## Newyorkear bi gure artean

Sharryn Kasmir eta Geoff Bate, "The Graduate Center of the City University of New York"eko antropologoek Mondragoe aukeratu dute euren tesi doktorala egiteko. Lan hau burutu ahal izateko, bakoitzak hiru beka ditu. Lehenengo aldiz 1986an bisitatu zuten Euskal Herria, eta beste herri batzuen artean, geurea aukeratu dute. Bi hilabete daramatzate hemen, guztira urte t'erdi egongo direlarik. Geoff, kanadiarra jatorriz, politikaz zentratuko du bere estudioa; ezker abertzaleaz, hain zuzen. Sharryn-ek, bere aldetik, Kooperatibismoaz ikerketa egiteko asmoa du; S.A. bat eta kooperatiba

baten arteko konparaketa, hain zuzen ere.

Geoff, gai hau auke-ratzekotan, zerak bul-tzatu du: "USAn ez dute ulertzen zelan Euskadi bezalako nahiko toki garatu eta aberats ba-tean eman daitekeen honelako borroka poli-tikoa".

Kooperatibei dago-kienean, USAko hain-bat tokitan planteatzen ari da kooperatibak

ezartzeko posibilitatea, bai errepu-blikanoak bai demokratikak bai ezke-rreko jendea sistema honen alde agertzen delarik. Honi buruz, Sha-rryn-ek honako eritzi hau dauka: "abstraktoan ezin daiteke esan beste sistemak baino hobea den ala ez. Nola eramaten den praktikara ikusi behar".

Hemen oso zorionsu daude, bestalde; hasieran harrিতa gelditu ziren kalean hainbeste jende ikus-teaz, tabernetako giroaz, etab. Baina berehala sentitu dira intregaturik, "heldu ginenetik bost minututara egin genituen lehenengo lagunak". Atsegin dute, nola ez, hemengo ja-naria, bereziki patata-tortila eta le-gatza; eta batere gustatu ez zaien gauza bat Deba erreka izan da. Jakina.



## San Juan Jaietako kartela

Honako hau da datorren San Juanak iragarriko duen kartela. Le-hiaketan 19 kartel aurkeztu ziren (hauetatik bi baztertu zituzten), Mi-kel Coca gazte errenteriarra irabazle suertatuz. Lan honegatik 40.000 pta.ko saria jaso du. Epaimahai-a honako hauek osatu zuten: Xabier Zubizarreta, A. Ibarluzea, "Txis-pas", Andoni Altube eta J.J. Uriarte.

Gutxiago gelditzen da 89ko San Juenetarako!



Bazegoen errepede hau konpontzeko premia

**Kanpantzarrerako bidea konpontzen ari.** Aste honetan Kanpantzarrerako errepidea asfaltatzen ibili dira, jo eta ke. Obrek eragozpen batzuk sortarazi dizkie kotxe gidariei. Izan ere, bazen garaia, bi-dea batzuek jositako bait zegoen. Datorren as-terako bukatzeko as-moa dute.

### JAIOTZAK

Otxoa Fernandez *Aitor*.  
Maiatzaren 16an.  
Gurasoak: Pedro eta Inozenta  
Sierra Navarro *Noemi*.  
Maiatzaren 19an.  
Gurasoak: Pedro Fernando eta Amparo

### EZKONTZAK

Jesus Ignacio Errasti Badiola & Maria Rosario Foronda Matias.  
Maiatzaren 22an. Zibilez  
Joseba Garzia & Ana Errasti  
Maiatzaren 13an. Elizaz.

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**BATZOKIA  
jatetxea**

Eguneroko menua  
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41  
Arrasate

**LARRINGAN**

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA**


**IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Toki turistikoean bezalaxe, hemen-dik ere **kaleko pintore baten bisita** izan genuen. Honek ez zuen lurrean margotzen, kartoian baizik. Galdera zorrotza: Zergatik aukeratzen dituzte hainbestetan erlijio-gaiak? Oraingo honetan txutxumutxetan harrapatuikoak anonimatoan gelditu dira, gure argazkilaria lepamoztaile ibili zen eta.



Pintorea Portaloiko arkupean lanean



Larunbatero, txalaparta ikastaroa

**Tak, tak, tok, tok, tak, tok, tak.** Lehen egunean, Portaloitik gindoazela, zarata arraro xamarra entzun genuen. Zer arraio? Hotsa zetorren lekura hurbildu eta, azkenean aurkitu genituen "errudunak"; Telefoni-kako edifizio zahar-rean larunbatero hainbat gazte ari dira, jo ta ke, txalapartarekin.



**José Luis Alberdi eta Arantxa Bergaretxe** ezkondu ziren Apirilaren 22an Dorletan. Arantxa arrasatearra dugu, eta José Luis, gazteiztarra eta paletako pilotari profesionala. Zorionak  
EPELDE

## izen propioak

**Xabier Pagaldai**, 42, Lan Kide Aurrezkian hogeitabost urte egin ostean, -Marketing teknikoa da-Ekainaren batetik aurrera, Angel Larrañagarekin batera sortu duen enpresa berrian hasiko da. Inmueble-aholkularitzan egingo du lan "Arrasate Inbertsio eta Zerbitzuak S.A."k. Bulegoak Iturriotz kalean izango ditu 11 zenbakian.

**Julita Agirreurreta**, 62, Maiatzaren 17an, Eroskik Gasteizko Mendizorrotzan antolatu zuen jaietan, bere lankideen omenaldia jaso zuen, aldez aurreko jubilaria zela eta. S. José kooperatibaren lan egin ondoren, S. Antolineko Eroskin hasi zen lanean, non denda burua izan zen.

**Mikel Coca**, 21, disenatzaile errenterriarak aurtengo San Juanetako kartel lehiaketa irabazi du, bide batez 40.000 pta. eskuratuz. 19 kartel aurkeztu ziren edizio honetan. Mikelek bi urte daramatza Arrasaten eta LKAKo Marketing saielan egiten du lan, egun erdiz.

**Poloni Garcia-Etxabe**, 64, aretxabaletarrak Eroskikoen gorazarrea jaso zuen Mendizorrotzako jaietan, Otsailaren amaieran aldez aurreko jubilaria hartu zuen eta. Aurretiaz Polonik Portasoleko Loramendi kooperatibaren aritu zen lanean. Eroskin 17 urte egin ditu, Fruta saileko arduraduna zen.

**José Javier Larrañaga**, 23, bergarra. Apirilaren 30ean Abade klaretiano egin ondoren, joan zen igandean, Maiatzak 21, lehen meza eman zuen Bergarako Santa Marina Elizan. José Javierrek Deustuan egin zituen Teologia ikasketak.

**Eroski Kontsumatzaileen Komitea**  
**Informazioa eta Formazioa.**

**Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan**



**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE

# Langabezia, guri ere eragiten digun gaitza

Langabezia mendebaldeko gizarteak sofrizten duen arazo larrienerarikoa dela ezin ukatu. Euskal Herriak une honetan Europako gazte-langabeziaren kopururik handiena du. Estatu desberdinak arazo honi konponbidea aurkitzen saiatu badira ere, orain arte, behintzat, ez diote konponbide egokirik aurkitu. Denok gogoratuko dugu Espainiako Gobernuak gazte-erlekuaren sustapenerako burutu zuen plana eta Estatu osoan, plan honek, jaso zuen kontrako erantzuna Abenduaren 14eko greba orokorrean. Langabeziak gizarte osoa jotzen du eta honetan ere Arrasate ez dugu salbuezen.



Portaloian bildu ohi dira Arrasaten langabezia dauden pertsona nagusiak

## Langabetu kopurua beherantz

Arrasaten azken bi urteetan langabeziak nabarmenki ez bada ere-beherantz egin du. 1987an, hau izan zen langabeziak goia jo zuen urtea, 2.190 langabetu baldin bazeuden gaur egun, INEMek egin duen azken estatistikaren arabera, 1.829 langabetu dago. Kopuru nahiko handia kontutan izanik herrian 26 mila pertsona bizi dela.

Hala ere, INEMekoen ustetan, langabetu kopuru hau ez da erreal. Arrasateko INEMen lan egiten duen Elenak honako hau esan digu "gure ustez, benetan langabezia dagoen jendea, inolako lanik egiten ez duen jendea, alegia, gutxi gora behera kopuru horren herena da". Baiezta-pen hau jendeak noizbehinkako lanak onartzen ez dituelako egiten dute. Sarriz gertatzen omen da, jendeak lan eskaintzak ez onartzea. Langabezia dagoen jendeak, nahiz eta lanpostu oso onak ez izan, eskaintzen zaizkien lanak onartu egingo lituzke eta hau ez omen da beti

gertatzen.

Ez dago esaterik ziur Arrasaten langabeziak beherantz zergati egin duen. Dena dela, aspaldian lantegirik ez ixtea eta Kooperatibak denboraldi baterako jendeak kontratatzea aipatu digute INEMen arrazoi posible bezala.

Bestalde, langabeziak orain urte batzuk izan zuen eragina gaur egun ez duenaren froga da, enpresek as-

denetarik dagoela adierazi digute INEMen. Baina beraien artean talde batzuk bereiz daitezkeela adierazi digute. Estatistiken balorazio zehatzik egiten ez dituzten arren, emakumeak, pertsona nagusiak, jubilaziorako urte batzuk falta dituzten pertsonak, eta ikasketarik ez duen jende gaztea, agertzen dira talde adierazgarri bezala.

Emakumeak osatutako langabetu taldea da, nabarmenki lan merkatutik kanpo geratzen ari den jende multzoa. Deba Garaian langabezia 4.149 pertsona dago eta hauetatik 2.420 emakumeak dira. Beraz, garbi ikusten da emakumeena dela langabeziaren arazoa gehien pairatzen duen taldea. Emakume hauek, INEMeko Elenak adierazi digunez, ezkondu zirenean lanpostua utzi zutenak edota lehen lanpostuaren bila diharduten emakumeak ditugu. INEMen emakumeentzat jasotzen dituzten lanpostu eskariak lanpostu tradizionalak izaten dira, hau da, sukaldari edo etxeko lanak egiteko. Bestalde, tradizionalki emakumeak bete izan dituzten lanpostuetarako, administrari lanetarako esaterako, gaur egun, enpresek nahiago izaten dituzte gizonak.

Pertsona nagusiek langabetu talde nahiko handia osatzen dute, behin lanpostua galduz gero, ez bait dute lanpostu berri bat aurkitzerik. Pertsona hauek, normalean lantegitik 62 urterekin botatzen dituzte enpresek. Bi urtez langabezia kobratzen pasa ondoren, urte t'erdiz subsidioa

*Deba Garaian  
langabezia 4.149 pertsona dago  
eta hauetatik 2.420 emakumeak dira*

paldi honetan peoiak eskatzea. Orain arte lanpostu hauek betetzeko jendea soberan egon bada ere, gaur egun enpresek lanpostu hauek betetzeko orduan jende faltan aurkitzen dira eta hau datu adierazgarria dugu.

## Langabetuen taldea

Arrasaten langabezia dagoen jende multzoa aztertzerako orduan

kobratzeko eskubidea dute eta ondoren jubilazioa. Beraz, enpresek pertsona hauek jubilatzeko era berri bat aurkitu dutela esan behar.

Gazteek ere langabezia dagoen jendearen kopuru handia bereganatzen dute. Hauek normalean lehen lanpostuaren bila ari diren pertsonak izaten dira. Enpresek Eusko Jaurlaritzaren subentzioa jasotzen dute

gazte hauek kontratatzearren, eta horren ondorioz nahiko erraz aurkitzen omen dute lanpostua.

## INEMek zerbait egiten al du?

INEMekoek galdera honi horrela erantzun diote, "lan-bulegoa deitu beharrean, langabetuen bulegoa deitzen diote". Beraiek izen honekin guztiz ados egon ez arren, nahiko izen adierazgarria da.

Arrasateko INEMeko bulegoan hilean seirehun bat kontratu tramitatzen da. Normalean lanpostu hauek aldi baterakoak izaten dira, eta urte batzuetatik hona aldaketa eman omen da. Orain arte kontratu nahiko luzeak tramitatu izan badiuzte, hau da, sei hilabetetarako kontratuak, azken aldi honetan hila-bete edo hogeitaz eguneko kontratu ugari tramitatzen dituztela adierazi digute. Kontratu hauek sustituzioak egiteko, lantegian lan pilatzea eman delako edo hilabete batean enpresa jende gehiagoren beharrean aurkitzen delako ematen dira.

Edozein enpresa INEMera joan baino lehen beste bide guztiak agortzen ditu.

INEMen langileak bilatzen dituzten enpresak kanpoko konstruktoreak izan ohi dira, Bailaraz kanpo kokaturik dauden enpresak eta lan

pertsonak eskualdean, behintzat, ez omen daude langabezian.

Garbi adierazi digute, nahiz eta enpresek gehienetan jendea hartzeko orduan INEMen izena emanda izatean eskatu, INEMen bidez lortutako lanpostuak eskasak izaten dire-

ren %75 jasoko du, hogeitamabost mila pezeta inguru. 25 urte baino urte gutxiago izanez gero, ostera, 550 pta. egunean jasoko dute ikasketak beka gisa. INEMen adierazi dugutenez, Kalderero edo antzeko ikastaroak eginez gero, lanpostua berehala



Gure herrietan mobilizazio ugari izan da langabeziaren aurka

la eta nagusiki konstruzioarekin zerikusia dutenak. Beraz, beste lanmota edo arlo batean lan egin nahi duenak, beste bideren bat jorrotua aurkitu beharko du lanpostua aurkitu ahal izateko.

aurkitzen omen da. Beste ikastaroen norberaren prestakuntza hobetzeko balio dute, baina besterik ez.

Ikastaro hauek bukatzean, INEMek diploma bat ematen du. Diploma honi esker enpresek langile hauek, praktiketan hartzeko ahalmena izaten dute. Kontratu mota hau duten langileek soldata osoa jaso beharrean, soldataren chunekoren bat jasoko dute.

Agian, azken urteetan herrian langabeziak beherantz egin duela esan daiteke, baina lana aurkitu duen jendeak zein motatako lanpostuak aurkitu dituen ere aztertu beharko litzateke, gaur egun aldi baterako lanpostuak izaten bait dira gehienak, hau da sei hilabete edo denbora gutxiagorako lanpostuak. Edozein modutan ere, lan hau hurrengo baterako utziko dugu.

## *INEMen bidez lor daitezkeen lanpostuak eskasak eta normalean aldi baterakoak dira.*

berezi bat egitera etorritakoak. Enpresa hauek langileak bertara ekarri beharrean nahiago izaten dituzte aldi baterako langile berriak kontratatu. Hau dela eta, jotzen omen dute INEMera. Horrez gain, enpresek INEMi Injineru teknikoak, kaldere-roak, soldadoreak eta igeltsariak eskatzen omen diote maiz. Horrelako lanpostuak betetzeko gai diren

## Zenbait laguntza eta erraztasun

Langabezi egoeratik irteteko norberaren burua prestatzea omen da biderik egokiena. Erizpide hau harturik INEMek urtean zehar ikastaro ugari antolatzen du. Ikastaro hauetan parte hartzen duen jendeak 25 urte baino gehiago izanez gero, ikastaroak irauten duen bitartean Lanbidearteko gutxienezko soldata-

**BELUN  
TABERNA**

**Lagunarte bikaina**

Garagartza Auzoa, z/g Tfnoa: 796114

**ITURRIOTZ TABERNA**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

**Tfnoa: 79 16 04**



## Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK

Iturriotz, 15

Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

# KOLTA

FAGOR SUKALDEEN HORNIDURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

## AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECEIko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

Alemana  
Frantsesa  
Ingelesa

Haurrak  
Gazteak  
Helduak  
Enpresak

Maila guztiak  
Azterketarako prestakuntza  
Ohizko ikastaroak eta trinkoak

Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

# itesa

- \* Pisu eta lokalak
- \* Orube eta lursailak
- \* Balorapenak

Gure aholkularitza,  
gestio eta  
salmenta-zerbitzuak  
eskaintzen  
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

## berango

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

## A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE  
Tfnoa: 761954 BERGARA

# LASAGABASTER

# JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik  
onenen aukera zabalena

Garibai, 9 Tfnoa:798997



# Alfonso Gorroñoigoitia: "Nik lana uzteak ez dit ardurarik sortzen"

Kooperatibek hogeitamar urte pasa dituztenean, gure herriko ekoizpen ekonomikoaren ehuneko handi bat beren gain dago. Beren filosofiarekin ados egon ala ez beren garrantzia ukazina da. Dagoeneko erakunde hauek sortu zituzten pertsona batzuei heldu zaie jubilatzeako ordua eta hauetako bat Alfonso Gorroñoigoitia dugu. Gaurko honetan bere jubilaria aitxakitzat harturik aldizkariko orri honetara ekartzea erabaki dugu kooperatibei buruz zertxobait hitz egin asmoz.

— Arrasate Press: Kooperatibek Arrasateri zer eskaini diote?

— Alfonso: Beno Kooperatibek Arrasateri gauza ugari eskaini diote. Lehenbizi esan behar, sei-zazpimila lanpostu sortu dituztela. Enpresa mailan, arlo askotako teknologiak, lehen ezagutzen ez ziren teknologiak, lantegiak, eta produktu berriak, kredituetxe baten egoitza nagusia, Arrasate inguruan sortu diren ikastetxeak, Eskola Politeknikoa, esaterako, etab. Gauza guzti horiek eskaini diote Arrasateri kooperatibek. Honetaz aparte, esperientzia berri baten jaioterri bezala, herriari izen apur bat ere eman diotela esango nuke.

— Kooperatibek herriari zer eskaini dioten esan diguzu, baina horren ondorioz herriari zerbait txarrik edo arazorik ekarri al diote?

— Norberak segun eta zein parametro erabiltzen duen, gauza bat edo beste esan daiteke. Nik populazioaren gehitzea aipatuko nuke, arazotzat. Herriak demografi gehikuntza inkontrolatua izan du eta herriaren azpiegiturak ez dio jarraitu hazkunde horri. Ezin izan du eutsi jende presio guzti hori. Puntu hau ikusten dut gauzarik txarren bezala.

— Zein izan da Arrasateko kooperatibek horren arrakasta handia lortzearen arrazoia?

— Arrasateko kooperatibek bi oinarri aipatuko nituzke, Euskal Herrian auzolanean aritzeko izan den ohitura eta industri tradizioa edukitzea. Gure herriak bi oinarri horiek zituen. Bestalde, Don Jose Mariak kooperatibak bultzatu zituen garaia, une aukerakoa zen, ekonomia gorantz bait zihoan, eta lehia ez zen larregikoa. Kooperatibak lehen momentutik enpresa-era batez

zuzentzeko hartu zen erabakia ere funtsezkoa da. Azken hau gaur egun jende guztiak ulertzen du, baina garai hartan kooperatibak enpresa moduan ezin zuzen zitezkeela uste zen. Guk hasieratik enpresa-arrazoizkotasunaz zuzendu genituen kooperatibak. Aipatu ditudan puntu guzti hauek bilduz gero, beste leku batean ere izango lukete arrakasta kooperatibek.


— Don Jose Mariaren pentsamoldeak kooperatibetan oraindik ba al du presentziarik?

— Gaur egungo gizartean, pentsamoldeak hamar urtetik hamar urtera aldatzen dira, kultura berriak, gertakizun desberdinak, erregimen aldaketa. Hori kontutan izanik, hasieran pentsatzen zen gauza ugari gaur egun beste era batean pentsatzen da. Edozein modutan ere, kooperatiben funtsa ez da aldatu; hezkuntza, elkartasuna eta lanaren nagusitasuna ditugu kooperatiben oinarriak eta hauek aldaezinak dira. Don Jose M<sup>a</sup>k ez zituen kooperatibak asmatu. Hiru ideia horiek gure izakerara moldatu zituen eta oraindik ere kooperatiben izakeran diraute.

Kooperatiben lehen kongresuan, printzipio-adierazpenean hiru ideia horiek berpiztu eta gaur egungo esakera-modura moldatu genituen, baina funtsak hor dirau.

— Zure eritziz kooperatibetan lan egiteak militantismoa eskatzen du?

— Edozein elkartetako partaide izateak, elkarte horretako gauzez arduratzea, leku horretan parte hartzea etab. eskatzen du. Horrek beti militantzia puntu bat eskatzen du. Leku batean sozio izatean, lana eta etorkizuna konprometitzen dituzu eta kooperatibarekiko konpromezua hartzen duzu. Alde guztietan gerta-



Alfonso Gorroñoigoitia

tzen den bezala batzuk beste batzuk baino gehiago egingo dute. Batez ere, noberaren pentsamoldea kooperatibak eskatzen duen mailara egokitu behar da. Horrek ahalegina eskatzen du, hango kidea zarela esateko eta helburuak betetzeko.

— Kooperatiben fundatzaile zaitugu eta Urriari jubilatuko zara. Zuek lanari uztean kooperatibek ezer galduko al dute?

— Nik lana uzteak ez dit ardurarik sortzen. Instituzioek ordezkapen mekanismoak izaten dituzte eta ezin pentsa daiteke Kooperatibak bezalako instituzio batzuk pertsona bakar baten mende egon daitezkeenik. Dagoeneko Lankide Aurrezki-ko lehendakaritza utzi dut eta egungo lehendakariak nik baino txarrago egingo duenik ez dut uste, gazteagoa eta prestakuntza hobea bait dauka. Instituzioek gizabanakoak gainditzen dituzte.

— Sarritan entzun ohi dugu jubilariorako, pertsonak prestatu egin behar duela, zu eritzi berekoa al zara?

— Jubilariorako prestatu behar dena burua da. Jubilarioaren aurrean nagusiki bi portaera daude, bata dagoeneko nahiko lan egin duzula pentsatzea eta handik aurrera ez duzula ezer egin behar; eta bestea oraindik lan egiteko ahalmena baduzula pentsatzea eta handik aurrera ordurte egiteko aukera izan ez duzun beste lan batzuk egiten denbora ematea pentsatzea. Ez dut uste prestakuntza berezirik behar denik, norberak bere buruari portaera bi horiek planteiatu eta horren arabera jokatu.

*"Hezkuntza, elkartasuna eta lanaren nagusitasuna dira kooperatiben oinarriko puntuak"*



Erakusketaren bi momentu: Kirol honi ez zaio falta espektakulariterik



## Skate-board-en espektakularitatea

Berrogeien bat lagunek hartu zuten parte, joan den larunbatean, Zaldibarren izan zen Skate-board txapelketan. Ekitaldia "Txanpa" dendak antolatu zuen. Uste dugu ez gabiltzala oker esaten badugu hau dela Arrasaten egiten den lehenengo ekitaldia; eta, esan behar arra-

kastatsua suertatu dela ekimena; jendetza handia, haurrak zein nagusiak, bildu zelarik. Nagusiek, gehienbat, kuriositateaz, eta txikiak benetazko zale amorratuak direlako. Txapelketaz gain, Getxoko lau gazte adituk erakusketa eman zuten, kirol mota hau oso espektakularra dela garbi utzi zutelarik.

Skate-boardzaleek pista bat nahi

dute praktikatzeko, eta helburu hau lortzeko hasierako pausoa litzateke ekitaldi hau, hain zuzen.

Nagusi mailan, honako hauek gelditu ziren aurreko postuetan:

1. Aritz Auzmendi;
2. Egoitz Arana;
3. Igor Iturbe.

Txikienen artean, Brian Fagan izan genuen trebeena.

*Hau  
zer den  
jakitea nahi  
ba duzu  
etor zaitez  
gurera*

**ERESI**

**Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE**

**APARTAMENTU,  
ETHEBIZITZA  
ETA  
BUNGALOWEN**

**SALMENTA  
ETA  
ALOKAIRUA,**

**TORREVIEJA  
ETA  
VILLASOLLOSA**

Informazioa:  
Enrique Mendieta  
Kontzesifno kalea 6, etxabea

**BRANKA  
JATETXEA**

Eguneko menua  
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa 79 60 10

**Memesa**

**79 42 22**


**TITARE**

LENTZERIA FINA

Olarre kalea, 8  
**ARRASATE**

podiuma

José Mari Otadui, "Txosa",  
futbolaria



Txosa, Eibarreko aurrelaria

"Txosa" da azken garai hauetan Mondrak sortutako jokalaririk karismatikoenetarikoa. Zer afizionatuk ez ditu gogoratzen aurrelari honen burukada indartsu eta hainbestetan lortutako golak? Mondran eta Makatzenan eginikoa, ekipo nagusian ibili zen, honek 3. Dibisiara igo arte, orduan Eibarrera pasatzeko. Hemen denboraldi bateaz aritu ondoren, Zornotzan eman zuen beste lau. Azkenik, aurrelari Atxabalpekoekin jokatu du, Barasoainek deitu arte, Eibarren "lagata" moduan jokatzeko, orain dela hilabete eta piku, eta denboraldia amaitu arte. Datorren urterako "askatasun karta" badu, Eibarren jarraitzea gustatuko litzaiokeelarik, jakina.

Eibarren bost partiduetan aritu da, hauetatik hiru osorik jolastuz eta bi gol lortuz. Golegile bikaina, birritan izan da Preferenteko "pitxitxi" a. Mondrak ehun eta piku gol egin zituen denboraldi hartan, berak bakarrik 34 sartu zituen. Eibarra, sekulako denboraldi hasiera baten ostean, orain 16. dago. "Normalagoa da orain dagoen tokian egotea aurrekoetan baino, 2. mailan ekipo milioidun asko dago eta".

"Txosa" k aitortzen du bera izan zela sorpresa handiena hartu zuena Barasoainen deia jasotzean, "ni hemen lasai nengoen eta, bapatean deitu egin zidaten. Ez nuen espero

*nitaz akordatzea, jokalaria pila dago 2.eko B mailan. Sekulako aldaketa da niretzat, entrenamenduak Eibarren etab. Izan ere, futbolista bezala, pozik eta harro sentitu nintzen deia jasotzean, 2.ean jokatzeko gozoki ederra bait da".* Hurrengo egunetan bere argazkia sarritan ageri zen hemengo egunkarietan, hainbat irrati eta ETBtik ere deitu ziotelarik; eta hau komentatzean hainbeste futbolistari entzundakoa esan digu guri ere: "kazetariak Otik 10era eramaten zaituzte berehala".

"Txosa"ri, komentatzen digunez, gustatzen zaiona futboleko jokatzeko da, baina ez du oso gertutik segitzen komunikabideetan futbolaz esaten dena, ez da "Marca" erosten duten horietakoa. Futbol zelaietara ere, sarritan ez da joaten. Askok kostata, azkenean eman dizkigu bere gustoko bi jokalariren izenak, "inoiz ez dut izan idolorik, baina gustatzen zitzaidan Santillanaren saltoa eta, gaur egungoen artean Van Basten, oso ona da".

□ Eskubaloia: finalera

Gazte mailako "Arrasate Kirolak" taldeak Gipuzkoako Federazioaren Txapelketaren finala jokatu du, datorren larunbatean, 5etan, Donostiako Bidebietaren kontra. Partidua Zarautzen jokatu da. Kopa honetan Roberto Madinabeitiaren mutilek, bat izan ezik, beste partidu denak irabazi dituzte, bukatutako denboraldi kaxkarra ahaztaraziz. Afizionatuentzat bus batek urtengo du 2,10etan Portaloitik. Hasi dira, bestalde, 40en bat mutil Kiroldegian eskubaloiko lehenengo ikasgaiak ematen. Harrobia zaindu behar.

□ Futbola

Pedruskok joan den asteburuan galduz bukatu zuen bere denboraldia. Alavesek 1 eta 2 irabazi zion Atxabalpen. Azkenean Pedrusko 4. gelditu da. Alaves Afizionatuak 3. mailara igoko du, eta Abetxukok igotzeko promozioa jokatu du. Mondrak, bere aldetik, agur esango dio bere afizioari igandean Atxabalpen. Denboraldi honen azken aurreko partidua jokatu du Touring-en aurka. Arratsaldeko 5etan izango da.

KIROLAGENDA

- **eskubaloia: larunbatean**, 4etan: Arrasate Kirolak - Bidebieta, Zarautzen. Busak urtengo du 2,10etan Portaloitik. Dohainik.
- **futbola: larunbatean**, 11etan, Oñatin, Deba Arroko Txapelketaren finala. **igandean**, 5etan: Mondragon - Touring.

Denborapasen soluzioak


Aritgrama

$$[(7 + 3) \times 5 + 6 + 4] : 2 \times 3 + 1 + 9 = 100$$

Bertako hitz ahastuak

Oldartu= Eraso

inpresio ona



inprimategia eta  
autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

## Harrizko abizenak



Arostegiko hilarria

Gaurkoan garatu behar dugun gaiak beti eragin du halako jakinahia, bere bitxitasuna dela eta. Hilarrietaz arituko gara.

Aintzinatik izan da Euskal Herrian arbasoen izen-abizenak hilarrietan tailatzeko ohitura. XIX. mendean oraindik irauten zuen usadio hau inolako aldakuntzarik gabe

ez estiloan ez eta zentzuan ere errepikatzen zen behin eta berriz, betiko ereduak erabiliz. Eredu hauek ondo gordetzen dira. Hilarrien jatorria, oster, ez dago batere garbi, aintzina da. Dena den, erromatarren aurretik bilatu behar, batzuetan keltarren erdeina ere aipatzen delarik.

Alde batetik esan genezake inguru hauetan eman diren heriotz monumentuen kataian azkenetariko maila dela (trikuharriak-kromle-txak-menhirrak-mugarriak) eta bestetik zenbait kulturaren eraginaren ondorioz sortzen dela, dudarik gabe.

Ohizkoak dira hilarrietan lauburuak, rosetoiak, eguzkiak eta apaingarri geometriko ezberdinak, Europa ertaineko leinuen hornikuntza elementu edo irudiekin bat datozelarik. Bestalde, ehorzketa-era hau erromatarrengandik ikasia da.

Erromatarrek hilarriaren antz handia duen hileta ikur bat zuten, "lauda" alegia: harri batzuk, non hildakoaren izena grabatzen bait zen.

Halere, ezagutzen diren hilarririk zaharrenak K.A. II. Mendekoak dira eta ez daramate inolako inskripzio-rik, irudi adierazgarriak baizik, zaldunak orokorki (batzuen esanetan aintzinako euskaldunek mito bat bailitzen gurtzen zuten zaldia), edo giza irudiak, borobil bat osatuz (zenbaitek, baskoiek hilbeteko gauetan egiten zituzten dantza batzuekin parekatu dituelarik).

Geroago, urteen buruan, eta erromatar eraginpean, izenak latindu egin ziren eta hilarrietan idatzi.

Nolanahi ere, teoria guzti hauek kontu handiz hartzekoak dira, nahiz eta oraingoz gure herriko historia iluneko gai hauetan argi pixka bat isurtzen duten bakarrak diren.

Mikel Arregi

**SEAT**

**Udalaitz, S. A.**



**GARANTIAK SENDOENA!**



Tailerra: Musakola Auzoa, z/g

Erakusketa: Zarugalde, 35 etxebehea

Tfnoak: 79 21 25 - 79 18 80

**ARRASATE**

**“ PAL ”**

burdindegia, brikolage

eta

tresneria

Uribarri etorbidea,3

Tfnoa 79 31 99

**M  
A**

**ARENAZA**

Altzariak

Diseinua

Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07

Aretxabaleta

**JOSE MARIA ARZAMENDI Doktorea**

Kirurgia orokor eta liseri-aparatukoa

Kontsulta astelehen eta ostegunetan,

5,30etan hasita aurrez ordua eskaturik

Igualatorioa mediko kirurgikoa

Lagun-Aro eta beste aseguro batzuk

Biteri Etorbidea,2 - 11 Tfnoa: 79 21 73 ARRASATE

**LORATEGI**  
**taberna**

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

# Autoen "IAT" errebisioa gero eta lehenago

Duela pare bat urte jarri zen martxan "Ibilgailuen Azterketa Teknikoa"(IAT) izeneko errebisioa, urte mordoxka duten autoentzat. Azterketa honen helburua autoen zahartzeak dakartzan arriskuei aurre egitea litza-teke. Izan ere, urteak ez dira inorentzat alferrik igaroz-zen, eta autoen kasuan nabaria da denboraren poderioz mekanismoak hondatuz doazela. Eta noski, hondatze horrek arriskuen ugaltzea dakar.

Oro har, ez ditugu horrelako betebeharrak gustora betetzen, edo inposaturik datozkigulako edo kostua gure gain doalako edota, besterik gabe, gure autoa ondo dabil-elako. Baina nik uste barren-barrenean onartzen dugula adin batetik aurrera autoek ere behar dutela urteoro txeko antzeko zerbait, gaitz seriorik sortu baino lehen neurriak hartu ahal izan ditzagun. Beste kontu bat litza-teke ia izen sakona den helburu hori lortzeko.

Kontuak kontu, goazen gaurko harira. Orain arte IAT delakoa 10 urtetik gorako autoentzat izan da derrigorrez-ko. Baina puntu honetan ere Europarekin parekatu behar eta zorioneko 1992rako 5 urtetik gorako auto guztientzat ezarriko da kontrol hori. Eta ordurarte geratzen zaizki-gun hiru urte eskas horietan, ondoko taularen arabera beharko da egokitze-lana:

**Autoaren matrikula azken eguna**

**IAT pasatzeko**

SS-1235-L baino zaharragoak		89.06.30
SS-1236-Ltik	SS-4683-Mra	89.09.30
SS-4694-Mtik	SS-6692-Nra	89.12.31
SS-6693-Ntik	SS-7912-Ora	90.04.30
SS-7913-Otik	SS-0386-Sra	90.08.31
SS-0387-Stik	SS-4562-Tra	90.12.31
SS-4563-Ttik	SS-7579-Ura	91.04.30
SS-7580-Utik	SS-2157-Wra	91.08.31
SS-2158-Wtik	SS-9323-Xra	91.12.31

Galdutako denboraren bila, erlojuaren abiada bizkortu digute. Horri esker, 1992. urte sonatuan eta beste zenbait mirakuluren artean, zure 5 urteko auto sasoikoa agure zahar bilakatuko zaizu.

Europa dixit.

*Mikel Intxausti*

# AUTOR



PEUGEOT TALBOT INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta  
TURBO-DIESEL  
INTERCOOLER BERRIA**

*Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g*

*Tfnoa: 79 94 11*

*Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75*

## Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA  
LORAZANTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

*Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94 - 6819082 ABADIÑO (BIZKAIA)*

## Hainbat jolas tradizional

Aurreko artikuluetan bezala, "jolas" gaiarekin jarraituko dugu. Gaurko honetan, hainbat aldiz jolas-tu izan ditugun jolas tradizional batzuk gogoraraziko ditugu.

Joko hauek arauak dituztenez, orokorrean, 4 urtetik gorako haurrentzat dira egokiak.

### **Kiriketa**

Haur bat "itsua" de eta begiak itxita hormaren kontra dago, kantu hau abestuz

Kirikiketan kaiku  
portua zeli  
zangoa me  
lepoa lodi  
kuku bada?

Lagunak ezkutatzen arte, behin eta berriro kantatuko du. Besteek "u, u, u,... erantzuten diotenean hasiko da hauen bila.

(M. Jesus Satrustegik jasotakoa)

### **Hegan hegan**

Denak korroan, tokatzen zaionaren amantal gainean jarriko dute behatza.

Honek "hegan, hegan, zuhaitzak" esaten badu, ez dute behatzik jaso behar.

Eta "hegan, hegan, txoriak" esaten duenean, denek behatza jasoko dute.

### **Txokolate jana**

Jokalariei begiak estaltzen zaizkie zapi batez. Batak besteari elkarri txokolatea emango dio.

Denbora jakin batean txokolate eta ogi gehien jaten duenak irabaziko du.

### **Hotz-berotan**

Jokoa zerbait ezkutatzean datza. Ezkutatatu ondoren, kanpoan gel-

ditu denak edo direnek, gauza hori aurkitu behar du(te)

Pista bezala, "bero, bero" edo "hotz, hotz" esango diegu, gertu edo urruti daudenean.

### **Kanika txiki bat**

Haurrak korroan daude, eskuak elkarturik, erdi irekiak.

"Gelditzen" denak eskuetan kanika bat du eta pasatuz doa, banan-banan, bere eskuak besteen esku bitartean sartuz, eta momentu batean, disimulu handiarekin, norbaiti esku bitartean kanika botatzen dio.

"Kanika txiki bat... dabil saltoka eskutik eskura. Nork ote du, nork ote du, nere kanika, nere kanika...?"

Noren eskuetan dagoen kanika asmatzen duena izango da ardura-dun beste bati uzteko.

Klarion Taldea



## omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora Ilean

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

ARRASATE

PRESS

astero zuekin

## J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak  
Azaletiko alergia

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE

## MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea, 13

Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

## ANDERE

Bainu eta  
sukaldeko  
ALTZARIAK

\*Sukaldeko altzariak neurri egin eta ezarri.

\*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurri ezartzekoak.

\*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

\*Diseinu altzarietan trebatuak gara.

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

## Maiatz

ILEAPAINDEGIA  
mixtoa

Elkano, 38 (Musakola)

Tfnoa: 79 58 78

ARRASATE

## Forma fisiko ona (IV)



Forma fisiko onaz eta eskasaz aritu gara pasatako egun hauetan, baina oraindik ez ditugu bata eta bestearen ezaugarriak aztertu. Forma fisiko eskasaren ezaugarriak era askotan agertzen zaizkigu. Lehendabizikoa, nekatuta egotearen sentipena izanten da, dena zailegi bezala agertzen zaigu eta esfortzu fisiko guztiak, nahiz eta oso txikiak izan, baztertu egiten dira. Horretaz gain, beste hainbat sintoma agertzen dira eta gaixorik daudela pentsatzen dute

askok, baina forma fisiko eskasaren ondorioa besterik ez da.

— *Nekea* esfortzu txiki bat egin ondoren: amasketa bizkortu eta estutu dugun ariketa oso txikia izan bada ere; adibidez, bi solairu arteko eskailerak igo, autobusa garaiz harrapatzeko azkar ibili bere atzetik, korrika txiki bat egin edo aldapa igo ondoren...

— *Bizkarreko mina*: Sabelalde eta bizkarreko lotura ahulengatik.

— *Lunbagoari* buruz antzeko zeozer esan daiteke; gure artean maiz agertzen den gaitza dugu hau, eta honengatik sendagileari hainbat bisita egiten zaizkio baita derrigorrezkoak ez diren tratamenduak egin ere; eta egia esan, muskuleria ahularen ondorioa besterik ez da ondoez hori.

— *Logabetasunaren problemati-*

*ka*: nekea, suminkortasuna, buruko minak, depresio arinak, eta gaixotasun konkretu bati ez dagozkion hainbat sintoma, forma txarraren ondorio besterik ez direnak.

— *Muskuluen minberatasuna* edozein aktibitate egin ondoren: eskailerak igo edo erosketak egiteko erabiltzen dugu poltsa garraiatu ondoren.

— *Gorputzeko pisu gehiegizkoa*, gantzen gehikuntzarekin.

Horrelako sintomak dituzten hainbat pertsona aurki dezakegu medikuntza orokorreko kontsultategietan, sendagilearengana hurbildu dira erremedio bila, bere eskuetan erremedio hori edukita, gaixorik ez bait daude, forma fisiko eskasa edo txarra besterik ez dute.

*Eukeni Olabarrieta*

*Arantxa Lizaso*

# BENGOA

## ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

### Zubizarreta Tailerrak



Gipuzkoa Etorbidea 22,  
Tfnoa 79 15 65

### FAMILI ETA GIZARTE-HEZIKETARAKO ZENTRUAK

**INFORMAZIOA: 3,30etatik 7etara**

**Sta. Teresa 12, Tfnoa: 79 04 59**

### Impi gozoak

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

## TXOKO TABERNA


Gure berezitasunak  
pintxo eta mokau  
gozoak



SAN FRANTZISKO XABIER  
IKASTOLA


## SAN FRANTZIZKO XABIER IKASTOLAKO ESKU-LANEN ERAKUSKETA

**Datorren asteartetik ostiralarte, MONTERRON jauregian,  
SAN FRANTZIZKO XABIER IKASTOLAKO ikasleek  
egindako esku-lanen erakusketa ikusgai izango dugu.  
Bertan, esku-lanen bideo saioak ere egongo dira.  
Ordutegia, arratsaldeko 5etatik 8etara izango da.**



*Salterain*

**Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur  
egun eskura daukazun leiho miresga-  
rriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...**



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE



## ETXEBIZITZAK

- Pisua konpartitzeko neska bat behar dugu. Tfnoa: 79 69 82 (gauetan)
- Pisu txiki bat errentan hartuko nuke. Aurrez lehen hiru hilabeteak ordainduko nituzke. Miguelez galdetu (bazkalorduan). Interesatuek dei 79 97 34 tfnora.
- Torreveijan Bungalows-a salgai. Hilabeteak: Ekaina, Uztaila eta Iraila. Gaueko 9.30etatik aurrera deitu, 79 15 74 telefonora.
- Laredo: Apartamentua salgai. Interesatuek dei 79 52 80 telefonora
- Etxabea eta 2. pisua salgai Erdiko kaleko 6an; Tfnoa: 79 49 36
- Kontsulta medikoa jartzeko, pisua errentan hartu nahi da. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. Gauetan
- Udarako aproposa, Algortan pisua salgai. Bista onak, Aldapas poligonoa. 3 gela, egongela, sukaldea eta komuna. Tfnoa: 469 82 69; gaueko 9etatik 10etara. Bitartekorik ez.
- Pisua salgai erdialdean. Interesatuek dei 79 29 82 telefonora
- Etxebizitza salgai Bergaran, Zubieta kalean. Interesatuek dei 76.38.55 (jatorduetan) edo 76.44.53 telefonoetara.
- Lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi dugu Arrasaten. Merkea bada hobeto. Tfnoa: 79 09 00. Lorea.
- Bikoteak, lehenbaitlehen pisua errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79 70 29. Iñaki.
- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Interesatuek dei 79 47 85 telefonora.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzue, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 79 52 89 telefonora. Aste bukaeretan: (94) 484 90 53 telefonora.

- Torreveija-n bungalow-a alokatzen da. Ekaina, Uztaila, eta Irailean. Deitu 9etatik aurrera. Tfnoa: 79 15 74.
- Aretxabaletan pisua salgai. Loramendi, 11. Tfnoa: 79 04 62
- Janari-denda salgai. (jubilazioagatik) Santa Teresa kalean. Tfnoa: 79 50 18
- Kontsulta Medikoa jartzeko pisua behar dugu alokairuan. Interesatuek dei 11 39 57 telefonora. (gauetan)
- Ikasleak pisu bila. Interesatuek dei 55 14 43 telefonora
- Donostian, Antiguu inguruan, pisua alokairuan Uztail, Abuztu eta Irailean. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuek dei 79 14 69 telefonora
- Pisua salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20

- Neska heldua prest legoke etxeko edo eskailera lanak egiteko. Arratsaldero 4etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu Gasteizerako (ahal dela euskalduna) Ordutegia: goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. Interesatuek dei 945 / 23 03 30 telefonora. (deitu gaueko 8etatik 9etara)
- Ingeles klaseak ematen dira (egustenero). Tfnoa: 79 41 24
- Emakume euskalduna prest legoke etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko (egun osorako). Interesatuek dei 79 07 73 tfnora.
- Neska gazte batek etxeko lanak edo umeak zainduko litzuzke udan. Interesatuek dei 79 88 73 telefonora. (arratsalderan)

## SALEROSKETAK

## LANA

- Emakumea behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuek dei 79 51 50 tfnora, arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara.
- Edozein lan egiteko prest nago. Kontabilitatea eta mekanografia menperatzen ditut. Deitu arratsaldeko 8etatik aurrera, 79 52 96 Tfnoa. Karmen
- Informatikako irakaslea behar dugu Paskal programaren klase partikularrak emateko. Interesatuek dei 79 99 82 telefonora. (Miren). Urgentea da.
- Neska euskaldun batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko litzuzke. 79 76 81. Lorea.

- Egoera onean dugun 96 bajo duen "pado soprani" akordeoia salgai. Interesatuek dei 79 40 51 telefonora.
- Puch Condor II markako motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72
- Seat 127 SS-k salgai. Interesatuek dei 79 80 08 telefonora (gaueko 9.30etatik aurrera)
- Ondo hornitutako ileapaindegia salgai. Tfnoa: 79 95 86
- Estrenaturik dagoen Denda Chalet-a salgai. Iaz eresia. Palma-4 modelo. Merkea. Interesatuek dei 79 07 73 telefonora.
- "Minerva" balantza elektronikoa salgai. Tfnoa: 76 11 60
- Bigarren eskuko paseo-bizikleta erosi nahi dut. Interesatuek dei 79 67 35 telefonora 9etatik 5,30etara.

## † ARRASATEN HILDAKOAK

Tiburzio Garitaonaindia Lizarralde, 69 urte  
Maiatzaren 17an

Jose Maria Zaldua Bergara, 80 urte  
Maitzaren 18an

Jose Girado Quile, 79 urte  
Maiatzaren 18an

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

Zeharkale estalla 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

## Famauen ahotik



"...Inguru guztietatik etorten zittuan zapatak neurrire eitteko..."

### Aramaixoko "Kuatrobiento" merenderuen jaixue.

Bai, 17 anai-arreba gitzuan "bakarrik" eta ni zortzigarrena ero. Merenderue gaukan eta txorixo, arrautza, urdaiazpiko,... danetik eukitten gaixuan, ardaue be ona. Aitte difuntuek Bittorixen alondigan elegiru zaharixe eta urik eta ezebe barik gero,... ardaue edarra? Jente asko etorten zuan, kazari, pastore... Mundrauetik pe bai, oinez. Hara orduko egarririk, eta euren aurrien zaharittik ardaue txorrrroo, bitze darixola, atara eta bai gustora eran jentiek.

### "Nahikue eskola" ikesi ta kriau

Eskolie... lau reglak ikasi ezkerona. Bi urte ein ta 11 urteaz kriau kontratue ein justien. Santagerako Sanjurgiko Felipe pastorie etorri jakuan aittei, pausue be moztu jakola ta ia mutilen bat bielduko auen, ardixek ekarteko ta...

Aitte niana, nik ezetz esateko baloreik ez, eta han ein nittuan bi urte. Tratau, etxien letxe tratetan nindduen ta tira,...

Handik urrengo, Atxabaltara. Zer etxuan bertan: 12 behi, txahalak, iri parie, astue, txarrixek... Astuei jarri angallak eta egun osue

### PATXI ZABALA: 57 urte ein jittuak zapatero

#### "BOSERIXEK", NEURRIRE EINDDEKO ZAPATAK

"Behi, iri ero txahal narrue ebalten zuan. Ipiñi tatxuelak azpizen, josi barrutik kanpora 14 ebrako harixaz eta zuelie gastetan jakuenien ipini barrixe eta aurrera, hamar urtien be apurtu ezinde"

Patxi Zabala

ganajatekotan. Hori etzanien, hartu irixek eta iretan, Apotzan gora Asentzio mendire. Irak han, Jerusalem. Handik etorri eta kortako lanak. Gogaitt ein naixuan nik han, majo.

Atxabaltan bi urte eindde, banak etxien pozik kriau-lanok akabau zielakuen, ta aitek Osintxuko Ontzola baserrire jueteko tratue ein. Han beste urtebete.

### Azkenien zapatero

Hamaxe urte naukan nik eta anai zaharrena Bilbon ikesten ibilli eta orduentxe zapatero hasi barri. Ofizue ikesi gure nauen esan jutzan eta halaxe hasi nitzuan. 38 urte arte berakin lanien eta gero 73rarte neure konture. 57 urte ein jittuak zapatero.

Hemen inguru guztietatik etorten zittuan zapatak neurrire eitteko. Modelue gaukan erakusteko: zapata bajue, txarolezkue, boserixe... Boserixek 22-25 pezeta eitten juen eta zapata bajuek 7 duro. Dana eskuz eitten zuan ta lan haundixe jaukien egunien pare bat akabetako ona izan bier. Oin ala ein ezkerero, gatzetarako lain be ezin atara.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

## Zelebrequerixak

Paskuazkuak egin biha ziela ta norbaittek engaitau zeban Pemales ijittuan andria konfesatzera joateko.

—Zazpigarren mandamentua? —pregunta zotsan abadiak.

—Oinddio be bizi da mandamentu hori, ala?

—Makifiatxo bat igurtzi hartuik izan biha dau honezkero. Hara ba, jauna, egi-egixa esangotsut. Oillo luma batzuk harrapau dittut.

—Asko?

—Luma hutsak?

—Ez jauna, luma ta guzti.

—Esaizu ba oillo bat harrapau dozula.

—Bai, bai, baiña eneban lenengo eta bigarren golpian harrapau. Golpe eta hiru ero lau luma; golpe eta beste dozenerdi; eta, zer karajo! esan neban. Golpe eta lepua bihurtu, eta lumak kendu eta orduan azaldu zan garbi garbi oillua.

—Ba oif jabiai "restituziñoa" egin biha dotsazu.

—"Destruziñoa" ze da?

—Lapurtutakoa jabiai bihurtzia.

—Oillua eta lumak?

—Oillua eta lumak!

—Jauna, ba oillua joan zan beste mundura. Lumak han dare eta oilluak die. Oillo haura zan haren jabia. Eztau laga herederorik eta...

—Eta oillua norena zan?

—Eztakit pa, jauna.

—Emoixozu orduen pobreren bati haren balixua.

—Bai jauna. Nere gizona baiño pobriagotik eztago eta...

Juan Martin Elexpuru



**URONDO** elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Sasoi bateko Toribio Agirre kalea

rrasatek izan du azken urteotan aldaketarik. Bai horixe! Eta argazkian ageri den kale-arte hau ez da gutxien eraberritu denetakoa; Olarte kalea dugu, orduan Toribio Agirre izenez ezagutzen bazen ere. Ba, garai hartatik geratzen zaigun eraikuntza bakarra San Frantzisko eliza da. Beste guztiak lurrerratuak

izan dira: eskubiko Gerraneko jauregiaren ordez etxe berriak jaso ziren; ezkerreko etxe miradore duna botatzean, kalea zabaldu eta pisu berriak eraiki zituzten; barreneko merkatu zaharraren lekuan, berriz, Sebero Altube plaza daukagu gaurregun. Eta ez pentsa hain aspaldiko aldakuntzak direnik, azken hogei urteetan burututakoak baizik.

Jerardo Elortza

—Fotozahar sariketa—

Herri mailan ze izen eman zitzaion argazkian agertzen den azokari?

—Joan den asteko irabazlea—

Jone Etxeberria, arrasatearra  
 (“San Andreseko jaiak San Jose Obreroren omenez ospatzen dira”)

Egundoko Walk-mana  
 -VIGURI Bideo Klubak emana-  
 eskuratu nahi baduzu,  
 aste honetan bertan  
 postala bidali gure helbidera,  
 erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:  
**Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate**



...eta gainera

**VIGURIk**

hilaren bukaeran

14'ko koloretako

**ITT NOKIA** markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

## **PROMOCIONES MARKULETE, S.A.**

### ***NABE INDUSTRIALEN***

### ***SALMENTA***

### **Mendi-Etxebarrin**

**445 m<sup>2</sup> tatik aurrera sarbide zabalarekin**

\*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.


\*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

\*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



## **HIRU S.A MEKANIZAZIOAK**

- \* **Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera**
  - \* **Fresatzeko makinak**
  - \* **Zenbakizko kontrola**
  - \* **Mekanizazio - zentruak**
    - \* **Tornuak**
- \* **Artezteko makinak, etab.**

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak:79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax:79 80 97

## Becerrilen gola

57.ean, Real Madrilek Belgradoko Spartarekin jokatu zuen, yugoslaviarreanean. Negua zen eta hotza, jasanezina. Bezperan, Becerrilek pokerrean eman zuen gaua eta zahatoak zortea ekarri zion.



Hiru mila peseta inguru irabazi zuen eta "orduan bazuan dirua hiru mila pela, hi!". Baina, izaten dira halakoak, lartxo eman behar izan zion zahatoari eta, hotza kendu bazion ere, giharreak makal makal eginda utzi zizkion. Becerrilen teoriak aspalditik dioenez, behin mozkortuz gero, ez da on osasunarentzat bapatean edateari uztea. Izan ere, futbol zelaira eraman zuen zahatoa eta arratsaldeko hiruretan talde osoarekin zelairatu zen, ozta ozta tente mantenduz. Hogei mila ikusle, belarra izoztuta bazegoen ere. Bostekoarena egiten zuen. Garai hartan, bostekoak gogorak ziren, aurkakoen zelaian ezinbestekoak. Gainera, becerrilek guapotzat zuen bere burua. Dena den, zelaiaren egoeragatik denak erortzen zirenez, berea ez zen hain zelebrea agertu eta askok patinatzaile trebetzat hartu zuten. Baina baloia ikusi, ezta urrundik ere. Ez zuen bikoiztuta edo hirukoiztuta ikusten, halakoetan normala denez, ez; guztiz, izkututuko gauzak ziren berarentzat. Haseran, jokoa jarraitzen ari balitz bezala mugitzen zen, gora eta behera, afan batean. Baina okerrago; beste partidu batean ari zela ematen zuen, bera bakarrik, ametsezko baloi batekin. Bankilotik garrasika hasi zitzaizkion.

Bukatu zen lehen zatia. Maravillas, orduko entrenatzailea, ez zen ordezko bat ateratzen au-

sartu, ez bait zeukan Becerrilek mozkor itxura handirik. Hori bai, lagunek berba gutxi egiten zuela igarri zioten. Maravillasek erretolika galanta bota zion, begi finkoak eta belarri itxiak entzun zuena.

Bigarren zatian, ikuslegoa berotu egin zen, jokoa gogortu eta zelaia putzuz bete. Becerril benetako zorabioa nabaritzen hasi eta aurrean gelditzea erabaki zuen (nonbait gelditzearren), leku eroso eta lasaia, Madrila ez bait zebilen oso fin erasoan eta aurrelariak negu patxadatsua nahi zuten. Maravillas, ordu erdian ibili zitzaion deika, defentsara jeisteko. Han behintzat, zerura begira egonda ere, traba egingo zuen eta. Kontu honetan zebilela, atzelari yugoslaviar batek (ahaztuta, segur asko, handik pasioan, atzelariei lagunketan zebilen mamu hartaz) pase ustela egin zuen eta Becerrilek nahi ez zuen baloi batekin eta atezain bakarti batekin egin zuen topo. Hala ere, ez zukeen prolemarik edukiko, Becerril gixajoak norabait bota izan balu baloia. Baina, saiatu bazen ere, baloia zapaltzea besterik ez zuen lortu -umeez traste borobil horren mugikortasuna sineskaitza aurkitzen duten bezala-, halako zortez ezen labandu egin zitzaion eta, astezainaren harridura keinuaren aurrean, baloia piskanaka piskanaka irristatuz, blai egindako belarraren gainean irristatuz, sare hondoraino sartu zen.

*Nondik itzulia den pasarte hau asmatuz gero, sari eder bat jasoko duzu Arrasate Pressen partetik. Idatz ezazu, bada, "Zeuk sortua" orrira eta ez ahaztu zure kolaborazioa.*

**Goiztiri**  
**Opariak**

Maalako Errebala, 11  
Tfnoa 79 87 43

**UDALA**

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako

klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



**KILI-KOLO**

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE

■ **Lanaren nekeak:** Euskadi Irratiko kirol saioak entzuten badituzue, ezaguna egingo zaizue Iñaki Elortzaren ahotsa. Bere lankideek "txapas" deitzen duten azpeitiar hau hasieratik sartu zen Euskadi Irratiko kirol sailean eta harez gero lan itzela egin du alor horretan. Kirolzaletasuna eta profesionaltasuna aipatu behar Iñaki Elortza definitzeko orduan.

Joan den astean Bidasoako Txirrindulari Itzulia ari zen jarraitzen motorrez, maiz zuzeneko koneksioak eginez. Hirugarren etapan edo, Iparraldeko Azkainen sartu zirenean, berebil bat irten zitzairen albotik —Iparraldean ez omen dute horrelakoetan trafikoa mozten, Frantziako Tourrean ezik— eta danba!, sekulako zartada eman. Motorzale biak aidean, eta hausturarik izan ez bazuten ere, bapo mailetuta atera ziren. Donibane Lohitzuneko ospitalean alta eman ostean, etxera ekarri zituzten. Pare bat astez ez dugu haren ahotsa entzungo. Bihoakio gure agurrik beroena.

■ **St. Elsewhere ospitalea:** Donibaneko ospitaletik Bostongo St. Eligius ospitale zaharrera. Ez da jauzi makala, ez, hantxe gertatzen bait dira ETB lez igandean ematen zaigun telesail amerikar honetako gorabeherak. EEBBetan agertu zenean, nahiko berritzailea izan zen, planteiamentuetan eta teknikan.

St. Elsewherek baztertu egin zituen ordura arteko ospitalei buruzko filmeen —Dr. Welby, etabarren— topikoak, eta aurrekoen irudi idilikopaternalistetatik egoera aski errealak kontatzera pasatu zen. Protagonistak ez ziren sendagile ahalguztidun on hutsak, baizik eta eritetxe horretako zenbait osagile, erizain eta laguntzaile, beren birtute eta akatsez.

Kamaren erabilpena, bestalde, desberdina izan zen. Agian gaur, *Hill Street Blues* eta horrelakoei esker, ohituago gaude horretara, baina orduan berria izan zen. Kamara mugikorrek asko eta ondo erabiltzen zituzten, ospitalaren pasabideetan batipat, oso inpresio dinamikoa sortuz. St. Elsewherean gauza asko eta oso azkar gertatzen dira.

Ikusi izan dudanean gustora ikusi dut. Bainaren bat aipatzekotan, zera, Maiatzean gaudelarik Gabonetako kapituluak ikusi behar izatea, alegia. Santa Klaus, Gabon kantak... Petral samarra.

■ **Aste Politikoa Aztertzen:** Euro hauteskundeak egin arte, Euskadi Irratiak astelehenetan ematen duen programa hau ez du gehiago emitituko. Kontaketa egunean, hau da, Ekainaren 18an, igandez, irratsaio berezia egingo dute, eguneko gorabehera guztiak komentatzeko. Horixe izango da sasoi honetako azken programa, fetxa horretatik aurrera programazio aldaketa dago eta.

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **Laino guztien azpitik,** astelehenean, 22,05etan. Estudioan André Luberiaga, Azkaineko alkatea; Pedro J. Ramirez kazetaria eta Agatha Ruiz de la Prada diseñadorea izango dira. Koldo Ameztoi kontalari bikainaren aktuazioa ikusteko aukera ere izango duzue.

■ **Katu kale,** asteartean, 22,05etan. Michelle Shocked-ekin elkarrizketa eta Faduran grabaturiko kanta batzuk zuzenean eskeiniko dira. Deliriums Tremens-en zuzeneko kontzertua eta elkarrizketa; Uztai-lean Gasteizen izango den jazzaldia- ren egitaraua eta, programa amiatzeko, Manolo Gil-en bideoa Barrikadako "El Drogas"en musikaz.

■ **Faraioen lurraldea** ("Land of the Pharaohs", 1955), larunbatean, 22,10etan. Zuzendaria: Howard Hawks; Antzezleak: Jack Hawkins, Joan Collins, Dewey Martin. Munduko piramiderik altuena erakitzeko agindu duen faraioa, beren bigarren emazteak antolaturiko konplotaren biktima suertatzen da. Emaztearen asmoa poliki poliki faraioren familia guztiarekin akabatez da.

## bideoak



**Gauguin basatia:** Filme honek Paul Gauguin pintatzaile frantsesaren benetazko istorioa kontatzen digu. Pintura jeinu izan zen honen gisa-portaera, sarritan basati, zoro eta amoraltzat hartu zen.

Gauguinen bizitza askatasunaren bilaketa izan zen. Hau lortzeko bere familia utzi eta Tahiti-ra atzerriratu zen. Bertan pintatu zituen bere koadrorik onenak.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)

4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

### Azteazkena



4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

100



	9	7
4	1	3
6	2	5
5		6
8	3	7



### Aritgrama

Markatutako puntutik hasita, saia zaitetz emandako kopurua lortzen, horretarako ahalbide hauek baliatuz

\*Aldeetara zein gora eginez, BATU

\*Behera eginez, KENDU

\*Zeharka behera eginez, ZATITU

\*Zeharka gora eginez, BIDERTU

### Bertako hitz ahaztuak

Sargoria bero handia den bezala, gaurko hitzak "hezetasun handia" adierazten digu. Berau osatzeko aurkitu itzazu ondorengo hitz multzoan hizki egokiak eta zuzenki ordenatu ondoren.

ABURU — 3

BASERRI — 4

BESO — 2

— E — — — E

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

## Horoskopoa



### ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Datorren astean egoera txarrean aurkituko zara baina zeuk bakarrik, inor nahatu gabe konponduko duzu egoera hori. Pozik sentituko zara.



### TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Lana dela eta, beste asunto batzuk askoz inportanteagoak pasatzen uzten ari zara. Norbait zuregana joango da laguntza bila eta ez zara konturatuko.



### GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Izarrek diotenez oso aste ona pasatuko duzu bai lanean bai ikasketetan. Ez gastatu esku artean duzun dirua baino gehiago, aurreratu egin behar duzu eta.



### CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Jende asko ezagutzeko aukera izango duzu baina gainetik bakarrik, dena den hori da orain behar duzuna, ez sakondu harreman horietan, etorri diren moduan joango dira.



### LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra


Lan arloan ez fidatu besteek egiten dizuten mesedeaz, norbaitek zu izorratzeko asmoa du. Erne ibili bestela ahalegin guztiak pikutara joango dira.



### VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Hainbeste denbora bakarrik ibiltzea ez zaizu komeni. Jaso duzun desengainu hori gainditu beharko zenuke; betiko lagunak hor daude, ez ahaztu.



### LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Dena zure alde daukazu, proiektu hori orain bultzatzen ez baduzu luzaroan aukera hau ez zaizu berriro agertuko. Aprobetxa ezazu, ez zara damutuko.



### SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Baliabide haundiko pertsona zara baina gauza materialetan bakarrik. Diruarekin ezin da dena lortu, ezta gutxiag ere. Zeure egun onena 26a



### SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Bidaitxo bat egingo duzu. Ez zara oso urrun joango baina nahiko egunerako monotonia ahazteko. Aste ona izango duzu jokuan, egin lotoa.



### CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra


Oso ausarta zabilza amodio arloan, nahi duzuna lortu arte ez zara geldituko baina zapuzketa bat jasotzeko prest egon behar duzu. Dena ez da larrosen bidetik joango.



### AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Orain duzun oreka asko kostatu zaizu lortzea, baina horrela jarraituz gero in sekula sekulorun mantenduko da, beraz lasai ibili.



### PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Nahiz eta etxean arazo batzuk eduki, beste gauza guztiak ondo doazkizu. Pozik egon beharko zenuke duzun zortearekin baina dirudienez, ez zara ezertaz konturatzen.

**Datorren ikasturterako Deba Garaiko eskolen matrikulaldiak edo aurreinskripzioen epeak**

**ARRASATE**

**AHIZKE-CIM** (79 01 32)

Matrikula: Ekainaren 1etik aurrera (maila guztietan), osatu arte.

**SAN VIATOR** (79 04 11)

IEErako aurreinskripzioak: Maiatzaren 30 arte

**ESKOLA POLITEKNIKOA** (79 47 00)

Ingenieritzarako inskripzioa: Ekainaren 23 arte

IEEko I. eta II. ziklorako: Maiatzaren 30 arte.

**INSTITUTUA** (79 44 47)

Inskripzioa: Maiatzaren 30 arte; Matrikula:

Ekaina eta Uztailen. BBB osoa euskaraz.

**ARRASATE MUSICAL**

Matrikula-inskripzioa: Maiatzaren 31 arte (5etatik 8etara, Akademian); Gutxienezko adina: solfeorako, 8 urte; balleterako: 5.

**ESKORIATZA**

**ALMEN** (79 57 00)

IEErako: Maiatzaren 30 arte.

**ARETXABALETA**

**ESKOLA PROFESIONALA** (79 79 00)

Aurreinskripzioa: Maitzaren 30 arte.

**OÑATI**

**ETEO** (78 13 11)

Goi Batxilergoa (IEE II): Aurreinskribatzearen epea: Maiatzaren 30 arte.

Bigarren mailako Lanbide-Heziketa (LH II): Aurreinskripzioa: Maiatzaren 30 arte.

Enpresa Zientziak: Aurreinskripzioa, Ekainaren 1etik 30era.

**INSTITUTUA** (78 12 78)

LH I, LH II, IEE: Maiatzaren 30 arte.

**BERGARA**

**UNED** (76 53 01)

Espediente aldatzeko eskaerak: Ekainaren 15etik Uztailaren 30 arte.

Matrikulazioak: Irailaren 15etik, Urriaren amaiera arte.

**COMPANIA DE MARIA** (76 25 40)

LH II, IEE I: Maitzaren 30 arte.


**INSTITUTUA** (76 31 42)

Aurreinskripzioak: Maiatzaren 30 arte.

**ESKOLA PROFESIONALA** (76 24 91)

Aurreinskripzioa: Maiatzaren 30 arte

**DENDARABA**



**MERKATAL ZENTRUA**

Paz, Postas eta Independencia kalea. Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ